



Asurruti

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: *Asurti*



43° 10' 9"

2° 33' 19"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Asua (**Ikus Asua**) baserriaren parean kokaturiko *Asurruti* baserri-izenak aldaera ugari izan ditu azken mendeotan. XVIII. mendeko Bizkaiko su-erroldetan, adibidez, hiru izen desberdin jasotzen dira: *Asu Urruti* (1704), *Asurruti* (1745) eta *Asu Vrrutia* (1796). Hortik aurrera, *Asurruti* forma nagusitzen da, dena batera idatzita: *Asurrutia* 1825eko polizia-erroldan eta *Asurrutia*, aldiz, XX. mende hasierako udal-dokumentazioan.

Dena den, 1857ko eraikin-erroldan bananduta aurkitzen dugu: *Azua-urrutia* (BUA, Viv). Baserri honen izendapena gertu duen *Asua* baserria-

rekin lotuta dagoela nabaria da. Ahozkotasunean, *Asurti* forma da erabiliena auzotarren artean, eta horren harira, uste dugu jabego-erregistroan jasotzen diren *Asurti* (1870, DJE, 2/ 225. or.) eta *Azurti* (1892, DJE, 6/ 114. or.) erak ahozkotasunetik eratorriak direla, hots, jabeak erregistratu zuenean erregistratzaileak entzun bezala jaso zuen.

Baserri etxe handia, bizitza bikoa, zeharo eraberritu dutena jatorrizko itxura desagertu arte. Gaur egungo eredia XVII. mendean hedatu zena da, hau da, hiru gorpuzduna. Erdian, atarte dugu, egurrezko zutikoak eutsia eta, al-

toponimia

Asua etimoaz esandakoaz aparte (**Ikusi Asua**) kasu honetan urruti hitzak gaur egun leku urrun batean dagoela esan nahi du, baina lehenago "beste aldekoa" adiera zuen. Bilbon, esaterako Urazurrutia dugu, "ibaiaren beste aldean".

*Berriz Iruditan / T. Angoitia*

damenetan, gorputz trinkoak. Honetan erabilitako materiala harria da, beheko solairuan, eta gainerakoetan, luzituta dago harlandua kantaletarako utziz. Erdikoan oster, egurrezko egitura adreiluekin osatzen da. Bi isuriko teilatua da eta, erdikoa bikoitza den arren bizitza bien artean banatzeko, ez da simetrikoa, ezker-raldea zabalagoa delako. Baoei dagokienez, beheko plantan leihoak dauzka, balkoiak lehenengoan, eta leiho txiki bana, ganbaran. Baina honen aurretik zegoen baserri zaharra Berrizko interesgarrienetarikoa zen. Goitik beherainoko egurrezko egitura zeukan eta adreilua zen hor-

mak betetzeko erabilitako material nagusia. Harlanduzko kantaleak eta halako leihoa zituena ezker-raldekoa zen. Beste aldean, berriz, egurrezko egitura lurreraino heltzen zen, izugarritzko tantaiekin. Beheko solairuko bitarteak harlangaitzaz beteta zeuden eta gaineko guztia, lehenengo solairua eta ganbara ere, adreiluzko hormekin atonduta. Oraingoak gorde du aurretik zegoenaren asimetria, baina ez, oster, atarteko dintelari eusteko zeukan koloma klasikoa, ezta baoen antolamendua eta teilatuaren hegalarri eusteko besoak ere.



Asurrutí, Guregipuzkoa.net/Caserío Azua de Okango © CC BY-SS: Ojanguren, Indalecio.